‘Bizitzarako Finantzak’ programarekin, ikastetxeekin lankidetzan eta Funcasen laguntzarekin

Kutxabankek finantza-hezkuntza indartuko du: ikasturte honetan 3.500 ikasle baino gehiagorengana iritsiko da, eta oinarrizko LHra eta ikasle zaurgarriengana zabalduko du eskaintza

83 ikastetxe publiko eta itundutako 14 eta 17 urte bitarteko ikasleentzako programak zenbait nobedade dakartza: ekintzailetza sustatzeko saio gehiago eta irakasleentzako prestakuntza

11 urteko ibilbidean, 716 ikastetxetako 30.000 ikasle inguruk parte hartu dute finantza-gaitasunak garatzeko programan

26.10.5. 83 ikastetxe publiko eta itundutako 170etik gora ikasgelatan, 14 eta 17 urte bitarteko 3.500 ikaslek baino gehiagok finantza-hezkuntza jasoko dute 2026-2027 ikasturtean Kutxabanken eskutik, finantza-gaitasunak garatzeko ‘Bizitzarako Finantzak’ programaren bidez.

Edizio honetako nobedade nagusia da hezkuntza-bazterketari begira zaurgarrienak diren ikasleek ere parte hartuko dutela, zehazki, Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Curriculum Anitzeko Programako ikasleek. Talde horientzat, parte hartzean oinarritutako dinamikak diseinatu dira, programa ikaskuntza-erritmo desberdinetara egokitzeko; hala, ulermena erraztu eta ikasleen inplikazioa indartuko da, eta heldutan arlo profesionalean zein pertsonalean erabakiak hartzean baliagarriak izango zaizkien trebetasunak garatuko dituzte.

Gainera, edizio honetan indartu egingo dira ikasle guztien espiritu ekintzailea sustatzeko dinamikak, eta enpresen kudeaketari lotutako oinarrizko finantza-kontzeptuak landuko dira, hala nola diru-sarrerak, gastuak, fakturazioa edo mozkina.

Jardueran parte hartuko duten irakasleek prestakuntza handiagoa jasoko dute, eta baliabide berriak izango dituzte, hala nola glosarioak, simulagailuak eta bideoak, beren ezagutzak zabaltzeko eta finantza-hezkuntzari begirako sentsibilizazioa sustatzeko.

11 urteko ibilbidean, 62 udalerritako 716 ikastetxetako 1.442 ikasgelatako 30.000 ikasle inguruk parte hartu dute programa honetan, zeinaren helburua baita oinarrizko finantza-gaitasunak garatzea, ikasle gazteek segurtasunez eta arduraz joka dezaten heldutan. Ekimenak bankuko 64 profesional boluntarioren laguntza jasotzen du urtero.

Programa Funcasen laguntzarekin garatzen da, eta ‘Finantza Hezkuntza Sustatzeko Funcas Programa’ (Funcas Educa programa) delakoaren barruan gauzatzen da. Urtero prestatu eta eguneratzen da, ikastetxeekin elkarlanean.

Metodologia aktiboak eta esperimentalak
Bizitzarako Finantzak (BF) finantza-hezkuntzako programa berritzailea da, hezkuntza-eremurako sortua eta metodologia aktibo eta esperimentaletan oinarritua.

Tresna nagusia kudeaketa ekonomiko pertsonalarekin eta erabaki arduratsuak hartzearekin lotutako egoera errealak planteatzen dituen simulazio-joko bat da. Gainera, material digital osagarriak ere baditu. Eskuragarri daude hemen: www.finanzasparalavida.com eta www.surfinanzasparalavida.com.

Finantza-hezkuntzako ekimen gehiago
Kutxabankek finantza-hezkuntzaren arloko beste ekimen batzuetan ere parte hartzen du, 'Rumbo a tus Sueños' (Zure ametsetara bidean) eta 'El Riesgo y Yo' (Arriskua eta ni) programetan, besteak beste, Kutxabank Gestión eta Kutxabank Seguros erakundeen bitartez, hurrenez hurren.

Era berean, Fineco Banca Privada Kutxabank erakundeko adituek gaiari buruzko eskolak ematen dituzte unibertsitateetan, eta "ESG Investment and Finance Summer Programme" programa akademikoaren buru dira.